

# KOSTU EGITURA

Beste edozein proiektutan bezala, gure enpresa aurrera ateratzeak hainbat kostu ekarriko ditu.

Alde batetik, lokalaren alokairua eta horri lotutako elektrizitatea, ura eta interneta ordaintzea, langileen soldatak, makinak eta haien mantentze lanak ordaintzea eta abar. Guzti hori kostu finkoei dagokio. Kostu aldagarriei dagokienez, kostu nagusia arropa fabrikatzeko materialen erosketa eta material horien garraioa ordaintzea izango litzateke.

Gure enpresak bezeroaren beharren arabera, material bat edo beste erosiko du, hortaz, ziurrenik hornitzaile ezberdinak izango genituzkenez eta kantitate handitan erosiko ez genukeenez, ez genuke eskala ekonomia hainbeste aprobetxatuko.

Bestalde, gure enpresaren helburua kalitatezko arropak fabrikatzea da, beraz, enpresaren errendimendua handitu ahala, lortutako dirua kalitatezko lehengaietan inbertitzeko asmoa dugu. Hortaz, esan ahalko genuke gure hedapen ekonomia ez dela produktu edota zerbitzu berriak eskaintzeko erabiliko, baizik eta —printzipioz— hasieratik eskainitako produktuen kalitatea hobetzeko.

Azkenik, gure enpresak eskainiko lukeen kalitate-maila dela eta, gure negozio-eredua ez litzateke prezio baxuetan oinarrituko. Nolanahi ere, prezioak, ahal den neurrian, erlatiboki baxu mantetzen ahaleginduko ginateke.